

# Urteko oroitzatxostena



Kulturaren Euskal Behatokia



## AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA.....</b>	<b>2</b>
<b>1. INFORMAZIO-SISTEMA.....</b>	<b>3</b>
1.1. Estadistika-eragiketak. ....	3
1.2. Estadistika-azterlanak.....	5
1.3. Hausnartzeko eta alderatzeko gunea.....	6
<b>2. KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANAK.....</b>	<b>7</b>
2.1. Komunikazioa eta hedapena. ....	7
2.2. Erakunde- eta sektore-harremanak. ....	8

## AURKEZPENA

Azaltzea eta ulertzea, hori dugu Behatokiaren erronka. Errealitatea ulertzen saiatzeko ekintzan, gertatzen denaren berri emateak euskarri gisa jokatzeko du. 2009an, hainbat alderdi elkartu dira ekoizpenari dagokionez, zehazki, oinarritzko estatistika-informazioaren sorkuntza eta haren geroagoko azterketa, bigarren mailako iturriek emandako informazioaren tratamendua eta azterlan kualitatiboak. Sektore-eremuko, ikerketa-eremuko eta nazioarteko eremuko hainbat aditu eta ordezkariarekin batera egin du Behatokiak ibilbide hori.

Egindako lanak EAEko kultura-sektorearen argiak eta itzalak utzi ditu agerian, duela gutxi arte alde batera uzten genituen fenomeno jakin batzuen garrantzia neurtzen lagundu digu, eta errealitatea beste begi batzuekin begiratzen eta gero eta abiadura handiagoz gertatzen ari diren aldaketekin kontu handiagoa izaten irakatsi digu, aldaketa horiek gure ziurtasunak zalantzan jartzen baitituzte eta askotan harrituta uzten baikaituzte. Ziklo-aldaketak edukiak ekoizteko eta hedatzeko moduetan, gure jokabideetan eta bizimoduetan, eta nagusi diren balioetan.

Aztertu ditugun datuek hainbat gairi buruzko informazioa ematen digute, gure kultura-industriek ekoizten dutenari, sortzen duten enpleguari eta duten fakturazioari buruzkoa, antzerkiaren, musikaren, eta ikusizko arteen alorreko programatzaileen jardueraren berezitasunei buruzkoa, eta erakunde publiko nagusiek kulturen egindako gastuari buruzkoa, hain zuzen ere. Kultura-kontsumoaren ohiturei eta ereduari buruzko hausnarketa egin da hainbat ikuspegitatik, kulturaren erabileren azterketan aurrera egiteaz gain.

Bestalde, ekindako azterlan kualitatiboek beste hainbat testuingurutan jazotzen dena ulertzen laguntzen dute. Sorkuntzan laguntzeko beste hainbat herrialdek dituzten formulen azterketak hainbat argibide ematen dizkigu EAEn gauzatzen diren politiketan berrikuntzak sartzeko, eta gazteen kultura-kontsumoko berezitasunak ezagutzeak mamitzen diren joeren berri ematen digu.

Geure buruari begiratzeko ispilu bat sortzen ari gara. Islatutako irudian geure burua ezagutuko ote dugu?

## 1. INFORMAZIO-SISTEMA

Informazio-sistema sendo bat sortzeko hainbat gauza behar dira, hala nola, berezko estatistika-eragiketen eta bigarren mailako iturrien hurbilketa konbinatuak, jardunbide egokiak aztertzeaz azterlanak, eta errealitatea ezagutzea eta aztertzea ahalbidetzen duten beste hainbat teknika kualitatibo.

### 1.1. ESTATISTIKA ERAGIKETAK

#### Arteei eta Kultura-industriei buruzko estatistika-eragiketak

Arteei eta Kultura-industriei buruzko Estatistikek behatokiaren sektore-eragiketei ematen diete hasiera. Funtsezko hainbat gairi –esate baterako, EAEn sektore jakin batean zenbat eragile aktibo dauden eta eragile horiek zein ezaugarri dituzten– erantzungo dien oinarritzko estatistika bat beharrezkoa da. Sektorearen bizitasuna eta dinamismoa ezagutu behar dira, eta aurrakako muturrean, baita sektorearen hauskortasuna kuantifikatu ere, ekintzak eta konponbideak gauzatzeko beharrezko baldintzak baitira horiek. Lehen ikerlanetan parte hartu duten erakundeek horietan egindako ahalegina nabarmendu behar da, eta baita horregatik erakunde horiei eskerrak eman ere.

Errolda-estatistika horien ondorioz, arte eszenikoen ekoizleak, diskoetxeak eta ikus-entzunezkoen enpresa ekoizleak ezagutzen ditu Behatokiak, eta baita horiek 2007an sortu zuten jarduera ere, sorkuntzari, ekoizpenari, ekonomiari eta enpleguari dagokienez. Horretaz gain, arte eszenikoen, musikaren eta ikusizko arteen eskaintza programatuaren xehetasunari buruzko informazioa ere badu Behatokiak.

Ezinbestekoa da nabarmentzea informazio horrek guztiak aurrerapauso handia dakarrela eta hainbat azterketa-aukera ematen dituela. Bilakaera-datuak lortzen ditugunean, datu horiei balio handiena atera ahal izango diegu, joerak nabarmenduz edota beste adierazle batzuk diseinatuz, eta beraz, argazki estatiko batez haratago joateko aukera izango dugu.

## **Finantzaketari eta gastu publikoari buruzko estatistika-eragiketa**

Estatistika-eragiketen barruan, Behatokiak azterlan pilotu bat egin du, EAEko erakunde nagusiek –Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta hiru hiriburu- eta Udalek– kulturaren egindako finantzaketari eta gastu publikoari buruzkoa; toki-administrazioak azterketa-xede gisa dituen estatistika baten atarikoak da adierazitako azterlan hori, eta 2009an hasi da haren landa-lana.

Egun dugun kultura-politikaren eredia Frantziako tradizioaren oinarria da, eta funts publikoak ditu finantza-euskarri nagusi. Haren eragina sektore-eremuen arabera desberdina izan badaiteke ere, kulturaren garapenari dagokionez, kulturaren finantzaketa publikoak garrantzi espezifiko gailena du testuinguru horretan. Ondorioz, funtsezkoa da herritarrek beren baliabideen helmuga zein den jakin dezaten, eta horrek gardentasuna dakar, eta beraz, baita informazioa ere.

Estatistika horren bitartez (5.000 biztanletik gorako 65 udalerrietan errolda-estatistika egingo da, eta biztanle gutxiagoko 75 udalerrietan, berriz, lagin-estatistika), datu jakin batzuk lortzeko helburua hartu du Behatokiak, batetik, EAEko administrazio publikoak kulturaren egindako gastuen magnitude ekonomiko nagusiak, bestetik, inbertsio-ahalegin horren ikuskera alderatua, eta azkenik, ahalegin horrek gizarte osoan duen eragina jakitea ahalbidetzen duten ratioak, hain zuzen ere. Laburbilduz, kulturara bideratutako diru publikoak nork, zenbat eta zertan inbertitzen duen jakitea.

Beste zenbait estatistikaren kasuan bezala, behatokiak antzeko operatiboen jarraibideei jarraitzen die, beste inguruneekiko bateragarritasuna segurtatzeko. Horrek abantaila bat ematen digu: xehetasun handiagoa, hain zuzen ere, batez ere gastuaren helmuga zein den ezagutzeari dagokionez.

## **Artxiboetako estatistika-eragiketak**

2009an artxiboetako Estatistika jarri da abian, eta eragiketa horrek ondarearen esparruan lehendik zeuden estatistikak osatzen ditu. Behatokiaren eta Irargiren arteko lankidetzak sustatzen da horren bitartez, EAEko Artxiboen egoeraren erradiografia eguneratu eta zehatza izateko. Horretarako, hainbat gairi buruzko informazioaren bilketari hasiera eman zaio, artxiboen giza baliabideei eta baliabide ekonomikoei, artxiboek duten dokumentu-ondarearen tipologiari eta bolumenari, jarduerari, azpiegiturari eta erabiltzaileei ematen dizkieten zerbitzuei buruzko informazioa, hain zuzen ere.

## 1.2. ESTATISTIKA AZTERLANAK

Eremu publikoan nahiz pribatuan erabakiak hartzeko komeni diren hainbat gairi buruzko ikerketa sakonei heltzen die Behatokiak. Teknika kuantitatiboak eta kualitatiboak konbinatzen dira horrelako azterlanetan.

### Kulturako enpleguak eta lanbideak

Honako jomuga hauek ditu azterlanak: batetik, kultura-sektoreak EAEn gaur egunean sortzen duen enplegua eta kulturari lotutako lanbideak ezagutzea, eta bestetik, epe ertain/luzerako ikuspegiarekin, enpleguari eta enpleguak gure lurraldean duen eraginari buruzko behin betiko informazio-baliabide bat diseinatzea. Horien ezaugarriak eta xehetasuna ezagutzea funtsezkoa da (gaur egun, inoiz baino gehiago) azken urteez geroztik garrantzi ekonomiko ukaezina hartzen ari den sektore baterako.

Lehen urratsa informazio-iturriak aukeratzea eta aztertzea izan da, enpleguak eta lanbide-errepertorioaren garapenen dagoeneko bide luzea egin duten esperientziak eta sistemak identifikatzea ahalbidetzen duten informazio-iturriak, hain zuzen ere. Horrela, EUSTATEkin, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Galetako Sailarekin eta EINekin lan egiteko lankidetzabide bat ireki da, zeharkako eta bigarren mailako iturrietan -erakunde horiek duela hainbat urtez geroztik hona sustatzen dituztenetan- jasota dagoen informazioa aprobeitzatzeko. Planteamendu horrek, era berean, sektorearekin lankidetzan aritzeko bidea ere irekitzen du, lanbideak eta enpresetako antolamendu-ereduak xehatzeko.

### Sorkuntzan laguntzeko politikak

Gai horrek sortutako ikerlanen, argitalpenen eta mahai-inguruen bolumena gaiak pizten duen interesa neurtzeko beste modu bat dugu. Kultura/sorkuntza binomioa kultura-politiken gaineko eztabaiden muinean dago gaur egun. Testuinguru horretan, sorkuntzan laguntzeko politiken erreferentziak beste herrialdeetan bilatzera bideratutako azterketa-ildo bat sustatu du Behatokiak, gaur egun EAEn ditugun politikak perfektzionatzeari buruzko hausnarketa-eta eztabaida-prozesu bati hasiera emango liokeena. Horrela, Frantzia, Britainia Handian, Suedian, Norvegian eta Holandan sustatutako jardunbide egokien kasuak aztertu dira. Sorkuntzan laguntzeko politikek hiru ikuspegi osagarriak heltzen diete: batetik, artista edo sortzaileari, haren jarduerari eta haren lanei, bestetik, artistaren lanek duten gizarte-balioa

eta horiek ondasun ekonomiko gisa kontsumi daitezen sustatzea, eta azkenik, ondasun ekonomikoa sortzeko "lanbideak" txertatzen dituen gizarte-alderdiak. Hiru alderdi horietako bakoitzak, era berean, berezi egiten duten hainbat aplikazio-formula ditu; formula horien eraginez, dagokion alderdiaren eraginkortasuna handiagoa edo txikiagoa izan daiteke, herrialde bakoitzaren erakunde-usadio eta -kulturen arabera. Nazioarteko esperientziaren azterketatik ikasitakoa EAEko errealitatean aplika daiteke. Horrela, epe motz, ertain eta luzerako lan-jokaleku posibleen katalogo bat prestatu da.

### 1.3. HAUSNARTZEKO ETA ALDERATZEKO GUNEA

#### Kulturan egindako gastu publikoari buruzko lan-taldea

Kulturaren alorreko 17 arduradun eta teknikariz eta Behatokiko taldeaz osatutako lan-taldea Kulturako Gastuaren Estatistikaren irismena eta edukia baliozkotzeko mekanismo gisa planteatu zen. Zuten esperientzia kontuan hartuz kulturako gastuaren kudeaketari lotutako *know-how* guztia aditzera emateko deialdia egin zitzaion antolakuntza-errealitate eta neurri desberdinetako zenbait erakundetako askotariko eragile ugari.

Lan-taldearen eztabaidek eta hausnarketek galdeketa aberasten eta dagoeneko abian jarri den landa-operatiboa bideratzen lagundu dute.

#### Lan-sarea nazioarteko hainbat kultura-behatokirekin

2009an, gazteek kultura kontsumitzeko dituzten modu berrien gainean hainbat behatokik batera egindako sare-lanerako oinarri metodologikoak ezarri ziren. Interes bereziko gaia dugu hori, interesgarrienak eta ohiko planteamendu metodologikoen bitartez heltzeko zailenak diren elementuetako zenbaitzuk elkartzen baititu, esaterako, jardunbideen jarduera-aniztasuna eta aldiberekotasuna, gazteak lehen "belaunaldi elkarreragilea" izatea, gizarte-sareen fenomenoak, gazteek kultura erabiltzeko eta kontsumitzeko dituzten moduen esanahiak eta zentzuak izandako aldaketak, edota jardunbide horietako zenbaitzuk kultura-praktikatzen hartzearen berezko zailtasuna, bestak beste; gai horiei buruzko galderak egin zaizkie gazteei. Hori lortzeko, behatokiak hiru focus group antolatu ditu, eta horien aurretiazko ondorioak nazioarteko behatokiekin egindako III. Jardunaldietan bateratu ziren.

## 2. KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANAK

Komunikazioaren eta harremanen barnean argitalpenak, Jardunaldiak eta kultura-sektorearekiko elkarguneak hartzen dira, eta baita emandako informazio-zerbitzuak ere.

### 2.1. KOMUNIKAZIOA ETA HEDAPENA

#### KULTURKARIA buletin elektronikoa

2009an 3 buletin berri hedatu ziren; buletin horietan hainbat gairi heldu zitzaien, hala nola, kultura-arteko elkarrizketaren Europako urteari, sorkuntzan laguntzeko ekimenei edota kultura digitalari. *Kulturkaria* kulturaren alorreko pertsonen esperientziei eta iritziei irekitako leihoa dugu. Pertsona horietako hamalauren (politikariak, ikertzaileak, analistak, edota ekintzaileak) iritzia eta iruzkinak Behatokiaren jakintza-bankuan sartu dira. Bestalde, buletinean parte hartzeko eskatu zitzaien pertsona eta erakunde guztiek, salbuespenik gabe, Behatokiari harrera ona egin ziotela nabarmendu behar da.

*Kulturkaria* buletinak, era berean, kultura-kudeaketaren eta -politiken gaineko argitalpen berrien aipamenei buruzko atal bat ere badu. Horrelako gaiak interesatzen zaizkien pertsonen zuzendutako gidaliburu gisa balio izateko jomuga duten hainbat erreferentzia berri aukeratu dira.

Estatistiken atalean, azkenik, kultura-esparruko interes-gaiei eta -fenomenoei buruzko datu berriagoak aurkeztu dira.

#### Behatokiaren webgunea

Behatokiaren webgunea Behatokiaren jardura hedatzeko bide nagusia dugu. Denbora-tarte horretan, nobedade nagusietako bat datuen kontsulta dinamikorako baliabidea izan da; denbora-tarte horretan sortu diren estatistiken emaitza osoak hedatzen dira baliabide horretan. Estatistika-hedapenerako Pc-Axis softwarean oinarrituta dago, eta erabiltzaileen premien arabera balioak hautatzeko eta informazioa maneiatzeko eta ikusteko aukera ematen du.



## 2.2. ERAKUNDE ETA SEKTORE HARREMANAK

### Nazioarteko III. jardunaldiak kultura-behatokiekin

Kultura-behatokiekin 2007an eta 2008an egindako nazioarteko jardunaldietako esperientzia aberasgarriaren ondoren, 2009an Kulturaren Euskal Behatokia anfitrioi izan da berriz ere, erakunde berberei Bilbora etortzeko gonbita eginez.

Elkarrekin topatzeko, hausnartzeko eta ikasteko gune hori jarraitutasun-nahiez sortu zen, eta hori barruraino sartu zaie parte-hartzaileei. Hona hemen parte-hartzaile horietako zenbaitzuk: Observatoire de la culture et des communications de Québec, Osservatorio culturale del Piemonte, Departament de Cultura de la Generalitat de Catalunya eta Observatorio da cultura galega. Oraingo honetan, Deustuko Unibertsitateko, Germán Sánchez Ruipérez Fundazioko eta Gazteriaren Euskal Behatokiko zenbait adituk ere parte hartu dute.

2009an, III. jardunaldietan batera jarri da gazteen gainean urte osoan lan-sareko kideek egin dituzten ikerlanen emaitza. Proiektuko baterako interesaren emaitza gisa, sareko Behatokiak egiten ari diren ikerlanekin jarraitzea eta Turinen (Gazteriaren Europako Hiria izango da Turin 2010ean) ikerlan horien emaitzak batera aurkeztea adostu da.

### Sektoreekiko harremana

Denbora-tarte horretan sektoreekin egindako lana, bestalde, ekindako estatistika-eragiketen emaitzak alderatzean oinarritu da batez ere. Landa-lanaren ondoren, inplikaturako sektore guztiekin alderatu ditu Behatokiak emaitzak, eremu hori zuzenean ezagutzen baitute. Zehazki, arte eszeniko, ikusizko arte, disketxe eta ikus-entzunezko ekoizleen 8 elkarteekin eta Kulturaren Euskal Planeko sektore lan-taldeekin egin dira bilerak. Beraz, elkarteei eskerrak eman behar dizkiegu, proiektuan laguntzeagatik eta euren elkartekideei proiektua hedatzeagatik.

Sektoreekiko zuzeneko harremanak Gastu Publikoari buruzko lan-taldea ere hartzen du barnean; Eusko Jaurlaritzaren eta hiru Foru Aldundien Kultura-sailetako eta EAEko udaletako 17 arduradun eta teknikarik osatzen dute adierazitako lan-talde hori. Horretaz gain, estatistikaren zati izango diren udalerrri guztietan (hiru lurralde historikoetan) aurkezpenak egin da; aurkezpen horietan 46 udaletako hainbat kultura-teknikari izan ziren.

## **Kontsultei eta informazio-eskaerei erantzutea**

Ohiko kontsultei eta eskaerei erantzuteaz gain, ad hoc aholkularitzako zerbitzua ere eman du Behatokiak, eta gainera, informazio-bankua hala eskatu duten ikertzaileen esku utzi du.